




insignificantes

Donostiako taldearen bigarren diskoa. Pop alai, melodia errazak eta dantzagarriak. Nahiz eta 16 urte pasatu diren Twins diskoetxeak (DRO) lehen diskoa atera zuenetik (Cuestión de tiempo), musika estiloa ez dute zipitzik aldatu (hori da, bederen, nik garbi atera dudana ondorioa haien musika bizigarriaren aldeko betiko apostuan. Popa eta rocka dute gustuko eta horixe egiten dute sentimendurik sakonenarekin. Pop sentimendua, goxotasun hunkigarria baladetan, kuraia dibertigarria rockean.

Insignificantes taldeak bere bigarren diskoa, "Insignificantes" izenburua daramana, 2006ko neguan eta 2007ko udan grabatu dute euren home-studioetan eta Aeroson estudioan. Dena elkarren artean egin dute, eta nahasketan eta produkzioan Aitor Carrasquedo teknikoaren laguntza izan dute. Beroarekin beste modu batera ikusten da bizitza. Haize hegoak mailukatzen duenean gorputza, gau epelaren mende gaudenean, zurrumurrak erdi musukatzen direnean, eta inguruaren zaratak behartzen zaituenean albokoaren belarrira hurbiltzea ia hozkatzeraino, denbora ahalik eta hoberean igaro nahi denean... orduan egiten da ezinbesteko Insignificantes taldearen musika. Eta gero galtzarbetik behera izerdia errekatan, dantzaren ondorengo emaitzak. Donostiako edo Euskal Herriko edozein txokotan senti dezakegun musika mailak itxaropenez betetzen gaitu. Hemen jartzen dira abiapuntuak, gero hor zehar kontuan har daitezten... Lehen, pop hitza erabili dugu, baina berba horrekin ez nuke inoiz Insignificantes taldeak egiten duen musika definituko. Denetarik entzun daiteke "Insignificantes" lanean. Erritmo bizkorak, pasarte gozoak eta geldoagoak hurrengoan, tarte armonikoak elkarren ondoan. Oscar Plazak baxua eta gitarra nahi dituen bezala erabiltzen ditu, lasaitasunez. Nota bakoitzari maisutasuna dario. Keno Mitxelenak teklekin eta programazioekin borroka liluragarria darama, espazioak tamainaz betetzen dituelarik. Jose Luis de Pablok bere ahots garbi, indartsu eta benetakoarekin unkiturik utzi ninduen. Iñaki Telleriak bateria hartu du bere gain eta soinu zuzena eta freskoa atera dio; ezin genuen suposatu ere bere garaian, baina dena denbora kontua da dena, kontzientziaz egina. Insignificantes taldeak ez du horretan huts egiten. "Disko" ukituak, baladak, rock sinfonikoari keinu txikiak, funkyaren ferekak, rocka, musika garbia, xumea, itxuran erraza, baina sarritan entzun ondoren ongi asetzen zaituena inolako betekadarik gabe. Zertzelada adierazkorak leku perfektuan, mailatik irten gabe. Sentuzko erakarketa. Diskoak ez du nekatzen, ezta gehiegi ezitzen ere. Une alaiak nahasten dira hunkitzera eramaten gaituztenekin. Poztasunak tristezia aurrerakoairen bidezidorrak zeharkatzen ditu. Unean uneko artegatasunetik arimaren estimulazio gorenera goaz. Sentsazio musikatueta garamatza Insignificantes taldeak. Ez da lan arina nahiz eta dena di-da batean igarotzen den belarrietatik. Musikarekin bizitzeko egurra badute, ez ordea, musikatik bizitzeko; sutan dagoen ezpala iharrak su itxurosoa ematen du eta egun hotzetan gorputz ugari berotzen ere bai.



1.- Insignificantes taldearen lehen diskoa, "Cuestión de tiempo", 1991ean argitaratu zen. Zuen bigarren lanak lehengoaren antza izugarria du eta hori ezin daiteke denboraren afera soilatik izan.

Joseren ahotsak laguntzen du abestiek izan dezaten berezko zigilua eta horrek garai hartako abestiak dakartza gogora. Baina disko berriaren ekoizpena, konponketak eta egite bera guztiz gureak dira. Garai hartan geure ibilbidea beste batzuen eskuetan utzi genuen; egun, ordea, dena aldatu egin da, baina arestian lehengaia bazegoen orain ere badagoela uste dut. Dena den, Oscar eta Iñaki taldera etorri direnetik, orain dugun soinu zerikusia handia izan dutela uste dut.

2.- Abestietan bihotz asko dago, baina Insignificantes taldearen alde zerebrala nondik azaleratzen da?

Hori azaleratzen da esaten dizuten guztia ez duzunean erabat sinesten, hau oso ona dela, beste hau eta beste hura. Badakigu zer dagoen, badakigu musikaren merkatuak zer zailtasun dituen, eta une honetan nahi duguna da gure lanak errekonzimendua izan dezala eta egiten diren kritikak onak izatea. Hala eta guztiz, abesti batzuekin bilatu nahi duguna entzulegoarengana zuzenago iristea eta entzunketa errazagoa izatea da. Beste kantu batzuk korapilatsuagoak dira, baina horrek ez die interesik kentzen.

3.- Pop erraza eta baliabide handikoa?

Ez, ez dugu uste pop erraza denik, are gehiago, ideia sortzen denetik grabatuta geratzen den tarte horretara itzuli asko ematen dizkiogu aberastearren. Arzakek egiten dituen plater bitxi eta berritzaileekin beste horrenbeste gertatzen da; erraza dira egiten baina jakin behar da nola. Ikerketan orduak ematen dira, anitz proba egiten dira plater bikain eta ikusgarri horietara iristeko, baina, beti ere, lehengai onak izan behar dituzu, eta gure kantuekin gauza bera gertatzen da.

ritxi aizpuru (2008ko abenduaren 13an)

José Luis de Pablo: ahotsa, koroak eta gitarra akustikoa
Keno Mitxelena: piano akustikoa, teklatuak, programazioa eta koroak
Oscar Plaza: baxua, gitarrak eta koroak
Iñaki Telleria: bateria eta perkusioa

